



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKARAZKO KULTUR ESKAINTZA: BERTARATZEKO OHITURETAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Durangaldeko kultur programazioaren azterketa

2015eko uztaila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKARAZKO KULTUR ESKAINTZA: BERTARATZEKO OHITURETAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Durangaldeko kultur programazioaren azterketa

2015eko uztaila



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak*
katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2015eko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

1.	SARRERA	6
1.1.	Azterketaren helburua.....	6
1.2.	Azterketaren eremua	7
1.3.	Metodologia	7
2.	AZTERKETAREN ONDORIOAK: OHITURETAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK	8
3.	AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	10
4.	AZTERKETAREN ABIAPUNTUA	13
4.1.	Kultura eta herritarren parte hartzea	13
4.2.	Eskaintza, asistentzia eta intentzioa	14
4.3.	Hizkuntzaren eragina	14
4.4.	Jarduera garrantzitsuak	15
4.5.	Bestelako aldagaiak	16
5.	AZTERKETAREN XEHETASUNAK	17
5.1.	Programazioaren aurre-azterketa: eskaintza	17
5.2.	Hartzaileen iritzi bilketa: galdetegia	18
5.3.	Antolatzaileei elkarrizketak	21
6.	BILKETAREN EMAITZAK	22
6.1.	Asistentzia eta ohitura	22
6.1.1.	Galdetegiko datuak.....	22
6.1.2.	Elkarrizketetako datuak	29
6.1.3.	Ondorioak: asistentzia eta ohitura	32
6.2.	Hizkuntzaren eragina	32
6.2.1.	Galdetegiko datuak	32
6.2.2.	Elkarrizketetako datuak	36
6.2.3.	Ondorioak: hizkuntzaren eragina	38
6.3.	Bestelako aldagaiak	38
6.3.1.	Galdetegiko datuak	39
6.3.2.	Elkarrizketetako datuak	44
6.3.3.	Ondorioak: bestelako aldagaiak	49

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak euskarazko kultur eskaintzara bertaratzeko ohituretan eragiten duten aldagaiak aztertu nahi izan ditu, eta horretarako, Emuneko kultura zerbitzuetako aholkularien laguntzarekin azterketa lan bat egin du Durangaldean 2014ko urritik abendura bitartean.

Azterketa lan horren emaitza da esku artean duzun txosten hau. Denbora tarte horretan programatutako euskarazko kultur jarduerak aztertu dira, eta antolatzaile, eragile eta hartzaileekin elkarrizketak eta galdetegiak egin ondoren, jaso da zein aldagaik eragiten duten euskarazko jarduera batera bertaratzeko ohituretan. Horrekin batera aurrera begira euskarazko programaziora bertaratzeko ohiturak sustatzeko gakoak diren lan ildoak proposatu dira.

1.1. AZTERKETAREN HELBURUA

Azterketa honen helburua izan da identifikatzea ze aldagaik eragiten duen herritarrek euskarazko kultur eskaintzara bertaratzeko dituzten ohituretan. Zehatzago esanda hauek dira helburuak:

- Herritarren euskarazko kultur jardueretara joateko ohituretan eragiten duten aldagaiak identifikatzea.
- Eragiten duten aldagaiak ezagututa, jardueretarako ohituretan eragiteko estrategiak definitzen laguntzeko informazioa jasotzea.

HIPOTESIA

Aldagai zehatz batzuek euskarazko kultur jardueretara bertaratzeko ohitura handiagoa sortzen dute beste batzuek baino, eta sektorearen arabera aldagai horiek desberdinak dira.

Azterketaren helburua jomuga, euskarazko kultur jardueretara bertaratzeko ohituretan eragiten duten aldagaien inguruko diskurtsoak eta ikuspegiak jaso dira.

1.2. AZTERKETAREN EREMUA

Azterketaren eremua honako hau izan da kultur sektoreei, jardueri eta herriei dagokionez:

Kultur sektoreak

- Antzerkia
- Dantza
- Musika
- Bertsolaritza

Aztergai izan diren jarduerak

- Ekitaldi eszenikoak: zuzeneko espektakulua eskaintzen dutenak

Aztertu diren Durangaldeko herriak

- Durango
- Elorrio
- Berriz
- Amorebieta-Etxano
- Ermua

1.3. METODOLOGIA

Hurrengo puntuan azaldu dugun metodologia erabilia eta pausoak emanda burutu da azterketa lana.

Emaitzara iristeko eman ditugun urratsak hauek izan dira fasetan banatuta:



AZTERKETAREN ONDORIOAK: OHITURETAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK

Azterketa lanaren emaitza nagusia da hemen jaso duguna, ikuspegi orokor batetik datu eta irakurketa guztiak aztertu eta denak batera koherentziaz aurkezten saiatu gara, hasierako helburuak eta hipotesia kontuan hartuta.

Kontuan izan behar dugu honakoa azterketa lan bat izan dela eta ez dituela ikerketa lan oso baten baldintza guztiak bete. Abenduko jarduerak bakarrik aztertu dira galdetegiaren kasuan, eta horrek jardueren eta sektoreen aniztasuna bermatzea mugatu du. Datuek ere hala erakusten dute:

-
- 2014ko urritik abendura bitarte programatutako ikuskizunen % 54 izan da musikakoa, % 32 antzerkikoa, %11 dantzakoa eta % 3 bertsolaritzakoa.
 - Aztertu diren bost herrietatik Durangon programatzen da gehien, bereziki musika.
 - Galdekatutako pertsona guztien % 54 musika ikuskizunetan galdekatu da.
 - Galdekatutakoen adinari dagokionez gehiengo nabarmen 30-65 urte ingurukoa izan da: % 82.
 - Antzerkian publiko gehiena emakumezkoa izan da: % 66.
 - Jardueratara gehienak taldean joan dira: % 58.
-

Hori guztia kontuan izanda eta horrek ondorioak baldintza ditzakeela jakinda, hona hemen euskarazko kultur ikuskizunetara joateko **ohituran** eragina duten aldagaiak:

EUSKARAZKO KULTUR IKUSKIZUNETARA JOATEKO OHITURAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIAK

ESKAINTZAREN eragina

- Eskaintza handia eta zabala izateak bertaratzeko ohitura hartzeko eta sendotzeko aukera areagotzen du. Eskaintza handiagoa da urteko azken 3 hilabeteetan eta horrek eragina du ohituretan, urtean zehar ohiturarik ez dutenak hilabete horietan ohituradunak bilakatzen baitira.
- Ohiturarik ez dutenak baina jarduera batzuetara puntualki bertaratzen diren pertsonak talde gako moduan hartu beharko lirateke eta lanketa espezifikoak egin, ohitura hartu eta publiko moduan egonkortzera iristeko.

ZALETASUNAREN eragina

- Zaletasunak fideltasuna bultzatzen du eta hori gakoa da ohitura sendotzen joateko.
- Sektore batekiko zaletasunak, sektoreko ikuskizunetara bertaratzeko ohitura hartu eta sendotzeaz gain, beste sektoreetako ikuskizunetara joateko gogoia pizten laguntzen du.
- Zaletasunak ohitura hartzen lagundu, bazkide izateko urratsa eman eta agente eragile izateko bilakaera aktibatzen du; horrek, aldi berean, ohitura sendotzen laguntzen du.

HIZKUNTZAREN eragina

- Hizkuntzak zaletasunak baino eragin txikiagoa dauka ohitura sendotzeari begira.
- Euskara sustatzeko sentsibilitateak bertaratzeko ohituretan eragin positiboa du, hartzaileen arabera.
- Beste hizkuntzekin lehiatu behar izateak eragin negatiboa du ohituretan, euskaldunak gutxienez lebidunak diren heinean.

PARTE HARTZEAREN eragina

- Publikoaren edo hartzailearen parte hartzea ikuskizunaren antolaketatik bertatik sustatzeak bertaratzeko ohitura sendotzen laguntzen du.
- Bazkietza politikek ohituretan positiboki eragiten dute, eta alderantziz.

BESTELAKO ALDAGAIEN eragina

- Gertutasunaren aldagaiak ikuskizunetara joateko ohituretan positiboki eragiten du, bai ikuskizuneko herritarra izateak, baita inguruko gomendioek ere.
- Ikuskizunaren kalitateak publikoaren fideltasunean eragiten du, jendeak bertaratzen jarraitu dezan laguntzen du, beraz, ohitura dutenengan eragin positiboa du.
- Komunikazio kanal egonkor, konstante eta sektoreko ezaugarrietara moldatua erabiltzeak erreferentzialtasuna areagotu eta bertaratzeko ohituretan positiboki eragiten du.
- Euskarazko programazioaren agerikotasun eskasak ohituretan eragin negatiboa du.
- Euskarazko jardueren zabalkundearen ahoz ahokoak funtzionatzen du, eta horrek ikuskizunaren gertutasunarekin batera ohituretan eragin positiboa du.
- Gizartearen joerek eraginda lehentasunak kultura ez den beste esparru batzuetan ezartzeak negatiboki eragiten du ohituretan.
- Denbora faltak negatiboki eragiten du bertaratzeko ohituretan, modu berean, denbora izateak positiboki eragiten du.
- Famatua izateak ez du ohituretan zuzenean eragiten; bertaratze puntualetarako amua da.
- Prezioak ez du ohituretan eragin zuzenik.

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Azterketaren asmoa ohituretan eragiteko estrategiak definitzen laguntzeko informazioa jasotzea ere izan denez, atal honetan informazio guzti hori aurrerantzean ohituretan eragin nahi bada kontuan hartu beharreko ildoetan laburtu dugu.


Azterketa lana aurrera joan den heinean ohartu gara pertsonak euren ohituretan bilakaera bat izaten dutela, hau da, kultur jardueretara noizbehinka joatetik ohitura sendotzerainoko bilakaera urrats batzuen bidez irudikatu dezakegula:



Prozesu hori kontuan hartzea garrantzitsua izango da etorkizunean ikuskizunetarako ohituretan eragin nahi bada.

LAN-ILDO ESTRATEGIKOAK

Ikuskizunetara joateko ohitura sustatzeko gakoak diren lan-ildoak proposatu ditugu, epe ertain nahiz luzean aplikatzeko modukoak izan daitezkeelakoan:



PARTAIDETZA KULTUR ESKAINTZAN

Ondorioetan aipatu dugun moduan, publikoaren parte hartzea, besteak beste, ikuskizunen antolaketatik bertatik sustatzeak bertaratzeko ohitura sendotzen laguntzen du, proiektuaren parte sentitzen baita. Horrela jokatzeko eraginkorra izan daiteke, esate baterako, ohiturarik ez dutenak baina jarduera batzuetara joaten diren pertsona horiek pixkanaka ohitura hartzen joateko. Multzo berezi moduan lanketa espezifikoak egin daitezke publiko moduan egonkortzera iristeko.

Partaidetza kultur eskaintzan bideratzeko estrategia gakoak

- **Jarduerak proiektu baten barruan**

- Jarduera huts bat baino, proiektu baten barruan kokatzen den programazioa izatea, helburu konpartituak dituen eta epe ertain-luzeko ikuspegia duena.

- **Jarraikotasuna eta koordinazioa**

- Programazio finkoa maiztasun definitu batekin egiteak publiko jakin bat egonkortzea dakar.

- **Herritarren aktibazio eta ahalduntzea**

- Herritarra antolatzaile, hartzaile eta partaide. Partaidetza proiektuan: diseinuan, estrategian, kudeaketan, antolaketan. Helburuak partekatzeak eurekin bat egitea dakar, proiektuarekiko atxikimendua garatzea eta proiektuko parte sentitzea.
- Elkarte eta norbanakoen arteko elkarlana bideratu, talde izaera indartu.
- Publiko egonkortzeko bazkietza programak, gazteei zuzenduriko programak.

- **Publiko izaerari dimentsio berriak egotzi**

- Publiko jantzia handitu, ezagutza handiagoa duena, exigentea, baloratzeko eta kritika egiteko gaitasuna duena. Bere iritzia eta kritika bideratzeko bitartekoak jarri.
- Publikoarengana gerturatzeko ekimenak burutu, antzokiko ateak ireki, antzokia kalera atera, sortzaileen lana ezagutarazteko ekintza osagarriak.

HEZIKETA ZALETASUNERANTZ

Heziketa maiz errepikatzen den landu beharreko esparrua da. Bai kultur formazioari begira, bai hezkuntza arautuan gehiago sakontzeari begira, bai kultur ezagutza garatzeko, zaletasuna sortzeko, eta abar. Epe luzera espero behar ditugu heziketaren emaitzak, hazia ereiteaz ari baikara etorkizunean fruitua jasotzeko. Guztiaren funtsean ezagutza handitzea dago, baloratzeko eta kritika egiteko gaitasuna garatzeko.

Heziketa bideratzeko estrategia gakoak

• Formazioa hezkuntza arautuan eta udal eskaintzan

- Tailerrak eta formazioa eskaini. Elkarlanean jardun aisialdiko taldeekin.
- Hezkuntza arautuko eragileekin elkarlanean sorkuntza eta zaletasuna bultzatzeko programak bideratu.

• Zaletasuna piztu

- Herrian sektorekako lanketak burutu, sortzailearen lana ezagutu eta baloratzeko. Gertutasuna landu, bertakoa ezagutu eta erakutsi.
- Kultura gizarteko beste eskaintza batzuen artean aukera gisa ikusteko lanketa berezia egin, esate baterako, aisialdia kulturarekin lotuta. Ikuskizunen ekintza paraleloak antolatu. Ikuskizun famatuak tartekatu.

• Etengabe berritu

- Askatasuna izan gauzak probatzeko. Kanpoko ekimenak ezagutu eta ekarri. Bertakoaren kalitatea hobetzen lagundu.
- Gizarteko aldaketak kontuan izan, adibidez, ordutegi eta ohitura berriak.

AGERIKOTASUNA

Euskarazko programazioaz ari garenean agerikotasuna bereziki eta besteekiko menpekotasunik gabe lantzea gakoa da, besteak beste, erdal eskaintzarekin eta bere baliabide handiagoekin lehiatu behar duelako. Bestalde, komunikazio kanal egonkor, konstante eta sektoreko ezaugarrietara moldatua erabiltzeak erreferentzialtasuna areagotu eta bertaratzeko ohituretan positiboki eragiten du.

Agerikotasuna bideratzeko estrategia gakoak

• Euskarazkoa nabarmendu

- Euskarazko eskaintza inguruan zabaltzeko kanal eta bide propioak erabili, bide eskusiboak direnak eta sektorearen arabera funtzionatzen dutenak. Esfortzu eta dedikazio handiagoa jarri honetan erdarazkoan baino.

• Zabalkundea eta publizitatea

- Sektore bakoitzaren komunikazio ezaugarrien araberako kanalak erabili. Ahoz ahokoa bultzatzeko bideak pentsatu. Interneten egon.
- Bitarteko komunikatibo zehatzak landu: izen edo marka bereziak

• Prestigioa eta erreferentzialtasuna

- Jarraikortasuna, gertutasuna eta etengabeko berrikuntza bideratuz, bertan egon beharra sortu.

AZTERKETAREN ABIAPUNTUA

Abiapuntua deitu diogun atal honetan azterketa lan honetarako erabili diren kontzeptuen oinarriak, ezagutzak eta teoriak jaso dira, eta baita azterketan nola aztertu diren ere.

4.1. KULTURA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Azterketa honetan kultur jardueretarako ohiturez hitz egiten dugunean, herritarrek kultur programazioan edo eskaintzan duten parte hartzeaz ari gara. Parte hartzea modu pasiboan edo aktiboan izan daiteke, *Guía para la evaluación de las políticas culturales locales*-en jasotzen denez:

- **Pasiboa:** kultur jardueren eskaintzara joan eta hartzaile gisa parte hartzen duena.
- **Aktiboa:** hartzaile izatetik eragile kultural izateko pausoa eman duena.

Parte hartze aktiboaren kasuan, eragileekin terminoaren esanahian gehiago sakontzea aurreikusten da, desberdina baita elkarte bateko bazkidea soilik izatea edo antolaketa lanetan aritzea, adibidez.

Gidak dioenez, herritar pasiboak kultur jardueretara joateko ohitura duela esan daiteke baldin eta hilean behin, gutxienez, jarduera batera joan baldin bada.

Azterketa honen kasuan, edozein jardueretara baino, **aztergai izango diren sektoreetako ikuskizun eszenikoko jardueraren batera joan izana hartu dugu kontuan.**

Alderdi hauek hartu ditugu kontuan **ohitura definitzeko:**

- Hilean behin, gutxienez, aztergai diren sektoreetako ikuskizun eszenikoko jarduera batera joan izana proiektua enfokatuta dagoen 3 hilabeteetan.
- 2014an aztergai ditugun sektore eta jardueretara zenbatetan joan den.
- Hartzaile izatetik eragile kultural baten parte izatera noizbait pasatu izana, hainbat modutan: bazkide gisa, antolatzaile...

Nola jaso den:

- 1. alderdia: hartzaileen iritzi bilketa.
- 2. alderdia: hartzaileen iritzi bilketa.
- 3. alderdia: hartzaileen iritzi bilketa eta antolatzaileen elkarrizketak.

4.2. ESKAINTZA, ASISTENTZIA ETA INTENTZIOA

Emuneko motibazioaren inguruko ikerketetan jaso eta garatu duguna programazioaren arlora estrapolatu dugu, hizkuntza batetik bestera saltoa edo aldaketa egiteko pertsonen motibazio prozesuak dituen atalak baliagarri izan daitezkeelako kasu honetarako:

- **Eskaintza:** herritarrak dituen parte hartzeko aukerak; herrian dagoen kultur eskaintza.
- **Asistentzia:** herritarraren portaera; zenbat jardueretara joan da.
- **Intentzioa:** intentziotik portaerara salto egiteko motibazioez galdetuko zaie.
Hurrengo batean errepikatzeko asmoa du edo ez, zergatik?
Zer gehiago eskatuko lioke horrelako ekitaldi bati, berriro etortzeko?

Nola jaso den:

- **Eskaintza:** programazioaren aurre-azterketan.
- **Asistentzia:** hartzaileen iritzi bilketan eta antolatzaileen elkarrizketetan.
- **Intentzioa:** hartzaileen iritzi bilketan.

4.3. HIZKUNTZAREN ERAGINA

Emuneko motibazioaren inguruko ikerketetan jaso dugu, orobat, jarduera baten hizkuntzak eragina duela hartzaile baten parte hartzean; izan kultur jarduera batean edo beste arlo bateko jarduera batean. Kultur jardueren kasuan aldagai hauek eragin dezakete euskarazko kultur eskaintzan parte hartzean:

- **Ulermen maila:** herritarrak duen euskararen ezagutza maila.
- **Kultur eskaintza:** euskarazko kultur eskaintzaren kopurua.
- **Agerikotasuna:** euskarazko jardueren presentzia komunikazio kanal eta sareetan.
- **Sentsibiltatea eta nahia:** jardueraren aukeraketan hizkuntzak eragina izan duen. Euskararen aldeko jarrerak batzuegan euskarazko kultur jardueretan parte hartzea sustatzen baitu.

Nola jaso den:

- **Hizkuntzaren eragina:** jardueraren aukeraketan hizkuntzak eragina izan duen hartzaileen iritzi bilketan jaso dugu eta elkarrizketetan horren inguruan galdetu.

4.4. JARDUERA GARRANTZITSUAK

Proiektu honetan Durangaldean (Amorebieta-Etxano, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua) 2014ko urritik abendura programatzen diren ekitaldi eszenikoak aztertu eta horien artean aukeraketa egin da, ondoren antolatzaileei elkarrizketak egin eta hartzaileei iritzia galdetzeko. Horretarako, jarduera garrantzitsuenak hartu dira kontuan eta bere definizioa Kultura Sailarekin adostu da, hainbat erreferentzia kontuan izanda:

Jose Ramon Insa: «kultura publikoaren funtzioa ez da merkatua sortzea, baizik eta modu independentean garatuko den estruktura kultural bat sortzea».

Eric Dicharry Lavie: «kultur proiektu eta jardueretan nozio hau aztertu beharko genuke, besteak beste: gizarteak dituen erronkak barnerratzeko nahiz hausnartzeko gaitasuna».

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokorako Emunek gauzatutako *Kultur espazioak euskal kultura sustatzeko* ikerketaren baitako elkarrizketetan arituentzat garrantzitsua da:

- Parte hartzaile kopurua: antolaketan eta ekitaldira bertara etorri den jende kopurua.
- Jardueraren helburuaren betetze maila: zer lortu nahi zen eta zer lortu den.

Hori guztia kontuan izanik,

Jarduera garrantzitsutzat hartu da, ikuspegi hauetakoren bat kontuan hartzen duena:

- Euskal kulturgintzaren beharrei erantzutea.
- Sektore baten errealitate edota behar zehatz bati erantzutea.
- Antolaketan parte hartu duen eragile kopurua bat baino gehiago izatea.
- Jarduerara bertaratu den jende kopuruak aurreikusitakoa betetzea edo gainditzea.
- Eskualde mailako eragina, gutxienez, izatea (beti ere herriaz gaindi).

4.5. BESTELAKO ALDAGAIK

Orain arte aipatutako faktore eta oinarriez gain, beste hainbat aldagai hartu dira kontuan:

- Ekitaldi soila den edo beste ekitaldi batzuek lagunduta dagoen.
- **Komunikazioa:** sare sozialetan oihartzunik izan duen, elkarte xedeekin landu den, kartelak jarri diren...
- **Maiztasuna.**
- **Iraupena:** ordu batzuk, egun bat baino gehiago.
- **Gertutasuna:** herriko sortzaileek emana, herritik kanpokoek, gertutasun mediatikoa daukan.
- **Zaletasuna edota fideltasuna.**
- **Nork antolatu duen:** udalak, eragileek.
- **Espazioa:** non antolatu den.
- **Prezioa.**
- **Bazkidetza politika.**

Nola jaso den:

- Elkarriketetan eta hartzaileen iritzi bilketan kontuan hartu dira.

AZTERKETAREN XEHETASUNAK

Azterketaren emaitzak eta ondorioak eman aurretik, hainbat xehetasun azaltzea komeni da eta horiek ekarri ditugu hona: jasotako jarduera kopuru totala eta horren banaketa sektoreka nahiz herrika; galdetegirako aukeratutako jarduerak eta kontuan izateko datu orokorrak; eta elkarrizketatuen zerrenda.


5.1. PROGRAMAZIOAREN AURRE-AZTERKETA: ESKAINTZA

2014ko urriko, azaroko eta abenduko euskarazko programazioaren bilketa lana egin da lehenbizi, programatutako euskarazko jardueren berri jasoz nagusiki kultur agenden bidez.

Sektoreka banatuta hauek dira kopuru totalak:

	Durango	Amorebieta-Etxano	Elorrio	Ermua	Berriz	TOTALA
Musika	32 (22*)	3	4	6	5	50 (40*)
Dantza	5	1	1	3	0	10
Antzerkia	9 (7*)	4	5	3	8	29 (27*)
Bertsolaritza	1	1	0	1	0	3
TOTALA	47 (35*)	9	10	13	13	92 (80*)


* Durangoko Azoka kontuan hartu gabe.



IRAKURKETA

Herri batetik bestera eta sektore batetik bestera asko aldatzen dira kopuruak. Zalantzarikgabe Durangon programatzen da euskaraz gehien (47 jarduera), eta bereziki musika programatzen da (32 jarduera, % 68). Sektorekako banaketari dagokionez musika da gailentzen dena, eta ondoren kopuru politarekin dator antzerkia ere (29 jarduera). Durangoren eta musikaren nabarmentze horrek badu zerikusia Durangoko Azoka tartean

tokatu izanarekin, Plateruena Durangon egotearekin eta bere programazioaren gehiengoa musika izatearekin. Eragile hori ez balego, herrietako programazioak orekan daudela esan genezake, eta gainera, musika bezainbeste programatzen dela antzerkia ere. Ikus datuak ondoko grafikoetan:



5.2. HARTZAILEEN IRITZI BILKETA: GALDETEGIA

Bildutako kultur eskaintzaren kopuruak eta herriak kontuan izanda, 10 jarduera aukeratu dira bertatik bertara hartzaileei galdeketa egiteko. Azterketaren hasiera datagatik abenduko jarduerak bakarrik aztertu ahal izan dira, eta horrek aukera zabal batetik azterketarako garrantzitsuenak liratekeen jarduerak aukeratu ahal izatea mugatu du.

Hiru sektoretan egin da galdeketa: musikan, dantzan eta antzerkian. Bertsolaritzaren kasua elkarrizketa bidez jasotzea erabaki da, saio ordezkagarririk ez egoteagatik abenduan.



Eranskinen aparteko dokumentuan jaso dugu:

- Jardueren xehetasunak eta egutegi osoa.
- Galdetegia.

Hona hemen aukeratutako jardueren zerrenda:

	Herria / Antolatzailea	Jarduera	Hartzailea
Musika	Durango Gerediaga	Gatibu	Gazteak
	Durango Plateruena	Potato, Akaitz, Dr. Baltz	Helduak
	Durango Udala - San Agustin	Traveling Brothers Big Band: gabon kanta amerikarrak eta euskaldunak	Helduak
	Ermua Musika Eskola	Kontzertua: musika eskolako ikasleak	Familiak
	Ermua Udala-Antzokia	Sostoa eta Pispillu abesbatzen kontzertua	Helduak
Dantza	Durango Gerediaga	Txapeldun. Organik dantza taldea eta Kepa Junkera	Helduak
Antzerkia	Durango Gerediaga	Emakumeak protagonista. Arren ganbara eta emeen sotoa.	Helduak
	Amorebieta-Etxano Udala-Ametx	Amama Anaren bidaia	Haurrak
	Elorrio Udala-Arriola	Koka kola eta barea	Helduak
	Berriz Udala	Mister Olentzero	Haurrak
Bertsolaritza	0 (elkarrizketa bidez)	-	-

Generoari dagokionez asmoa izan da jarduera guztietan galdekatuen erdiak emakumezkoak eta beste erdiak gizonezkoak izatea. Antzerkian ordea, publiko gehiena nabarmen emakumea izan da eta ezin izan dugu gizonezko gehiago harrapatu.




OHARRAK

- **Amama Anaren bidaia**
Jarduera gaztelaniaz burutu da, nahiz eta agendetan euskaraz izango zela iragartzen zen. Bi elkarrizketa bakarrik egin ahal izan dira.
- **Potato, Akaitz, Dr. Baltz**
Oso jende gutxi. Bi neska bakarrik euskaldunak.
- **Koka kola eta barea**
8 pertsona bakarrik antzerkia ikustera, horien artean gizon bakarra.

HAINBAT DATU OROKOR

10 jarduerak kontuan izanda 55 pertsonaren iritzia jaso da.



IRAKURKETA

Adinaren datuak begiratuta gehiengoak 30 eta 65 urte artekoa izan da. Kontuan izan behar da jardueren hartzailen nagusiak helduak edo publiko orokorra zirela eta espero zitekeen emaitza dela. Dena den, 30 urtetik beherakoak ere horien artekotzat joz, esan genezake jardueretara joaten direnak helduxeagoak direla, oro har.

Aztertutako jarduera hauetara gehienak taldean joan dira. Badirudi errazagoa suertatzen zaigula lagun-arte, familian edota taldetxoan joatea ikuskizunetara.

5.3. ANTOLATZAILEEI ELKARRIZKETAK

Bildutako jardueren programatzaile nagusiak elkarrizketatzea helburu izanik, aztergai diren bost herrien tamainaren eta jarduera kopuruaren arabera elkarrizketa hauek egin dira:

Durango: 4 elkarrizketa
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udaleko Kultura Batzordea + San Agustin Kultur Gunea ▪ Plateruena Kafe Antzokia ▪ Karrika Antzerki Taldea. San Agustineko talde egoiliarra ▪ Durangoko Bertso Eskola ▪ (Gerediaga Elkarte: jakinaren gainean jarri galdetegia pasatuko dugula Azokan)
Amorebieta-Etxano: 2 elkarrizketa
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udala + Ametx + Zornotza Aretoa: elkarrekin ▪ Markeliñe Antzerki Taldea
Elorrio: elkarrizketa 1
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arriola Kultur Aretoa + Udala
Ermua: 2 elkarrizketa
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udala + Ermua Antzokia ▪ Euskal Birusa Elkarte
Berriz: elkarrizketa 1
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udala + Kultur Etxea

Elkarrizketetarako gidoia

Elkarrizketetarako erabilitako gidoia hiru blokez osatu da eta eranskinen aparteko dokumentuan jaso:

- A blokea: Hasiera.
- B blokea: Politikak eta estrategiak.
- C blokea: Estrategia eta zereginen balorazioa.

A blokearen bidez, elkarrizketatua, bere jarduna eta lan esperientzia ezagutzeko datuak jaso dira.

B blokean ondorengo gaiak aztertu dira: jardueretara joateko ohitura, bazkidetza politikak eta asistentzia.

C blokean, jardueretara joateko ohituretan eragina duten aldagaiak aztertu dira.

Dena den, emaitzak ematerakoan galderak ere birformulatu dira txosten honetan bertan.

BILKETAREN EMAITZAK

Atal hau azterketa lan honen atal nagusia da. Bertara ekarri ditugu galdetegietan eta elkarrizketan bildutako datuak eta horien ondorioak, guztiak ere abiapuntuan ezarritako oinarrien arabera sailkatuta:

1. Asistentzia eta ohitura.
2. Hizkuntzaren eragina.
3. Bestelako aldagaiak: zaletasuna, prezioa, denbora, herritarra izatea, famatua izatea, ingurukoek gomendatua, lekua.

Ondorioak ateratzerakoan datuak bere horretan aztertu ditugu alde batetik, baina euskarazko jardueretara joateko ohituretan eragiten duten aldagaiak identifikatu ahal izateko horrekin ez dela nahikoa irizita, jardueretara joateko ohitura dutela aitortu dutenengan eragin duten faktoreak hartu ditugu oinarri hurrengo ataletan, gure ondorioak ateratzeko.

6.1. ASISTENTZIA ETA OHITURA

Abiapuntuan esan dugunez, programatutakora bertaratzeko ohitura nahiz parte hartzea jasotzeko galdetegia eta elkarrizketak erabili dira. Zehatz esateko honako galderetan jaso ahal izan da:

GALDETEGIA

- 1. galdera
- 2. galdera
- 3. galdera

ELKARRIZKETAK

- B BLOKEA. Politikak eta estrategiak.

6.1.1. Galdetegiko datuak

1. GALDERA. Euskarazko musika, dantza, antzerki eta bertso ikuskizunetara zein maiztasunez joan zara azken 3 hilabeteetan?

- Ikuskizun honetara bakarrik
- 2-3 aldiz
- 4-6 aldiz
- 6tik gora


AZALPENA

Ikuskizun mota horietara joateko ohitura jaso nahi da galdera honekin, «hartzaile pasibo» gisa. Ohitura honela xehatu da:

- Hilean behin, gutxienez, aztergai diren sektoreetako (musika, antzerkia, dantza eta bertsoaritza) ikuskizun eszenikoko jarduera batera joan izana 2014ko urrian, azaroan eta abenduan. Lau arloak batera kontuan hartuta, hiru hilabetetan 3 aldiz gutxienez joan izana.

Ohitura moduan hilean behin, gutxienez, ikuskizun eszenikoko jarduera batera joan izana zehaztu dugunez, eta kontuan izanda galdetegi hauek egiten abendu hasieran hasi garela eta bi hilabete inguru aritu garela galdezka, ikuskizunetara joateko ohituraz ari garenean **2-3 aldiz eta hortik aurrera joandakoak** hartuko ditugu kontuan.

DATUAK



ONDORIOAK: 1.GALDERA

Urrian, azaroan eta abenduan galdetegia erantzun duten pertsonen gehiengoa (% 76) 2-3 aldiz edo maiztasun handiagoarekin joan da musika, dantza, antzerki edo bertso ikuskizunetara. Aldiz, gainerako % 24ak, soilik galdetegia egin dioten uneko ikuskizun horretara joan dela aitortzen du. Udazken sasoiari ikuskizunetara joateko ohitura dagoela ondorioztatu dezakegu, eta horrek eskaintzarekin lotura zuzena izan dezakeela. Izan ere, urtean zehar programazioa ez da berdin banatzen eta urteko azken hiruhilekoan bereziki bete izaten da herrietako kultur agenda. **Beraz, zenbat eta eskaintza zabalagoa, orduan eta bertaratzeko ohitura handiagoa.**

2. GALDERA. 2014 osoa kontuan hartuta, arlo horietako euskarazko zenbat ikuskizunetan izan zarela esango zenuke?

- 1-3
- 4-6
- 7-9
- 9tik gora
- Horien artean zein arlotara joan zara batez ere? Zenbakiak bota gutxi gorabehera.
 - Musika
 - Dantza
 - Antzerkia
 - Bertsolaritza


AZALPENA

Ikuskizun mota horietara joateko ohitura jaso nahi da galdera honekin ere, «hartzaile pasibo» gisa. Kasu honetarako ohitura honela xehatu da:

- Aztergai ditugun 4 sektoreetako jardueretara zenbatetan joan den 2014an zehar. Urte osoan joandako jarduera kopurua xehatzea da helburua hemen, hau da, urte guztian 6 ikuskizunetara joan dela esan baldin badu, zein arlotako ikuskizunetara joan den identifikatu nahi dugu.


Ohitura moduan, kasu honetan, eta lau sektoreak kontuan izanda, urtean gutxienez 7 ikuskizun eszenikoko jardueretara joan izana hartuko dugu kontuan.

DATUAK



2014ko urteari dagokionez, galdetegia erantzun duten pertsonen gehiengoa (% 58) 7 ikuskizun edo gutxiagotara joan da eta gainerakoa (% 42) 7 ikuskizun edo gehiagotara joan da. Ikuskizunetara joateko ohitura dutenen multzoa ohiturarik ez dutenena baino txikiagoa izan arren kopuru polita dela esan dezakegu, 5 lagunetik 2.


IKUSKIZUNETARA JOATEKO OHITURA DUELA AITORTU DUEN % 42




Euskarazko musika, dantza, antzerki eta bertso ikuskizunetara joateko ohitura dutenak % 42 direla aipatu dugu, hau da, galdetegia egin diegun 55 pertsonetatik 23k adierazi dute, 2014an zehar, aztertzen ari garen lau arlo horietako euskarazko 7 ikuskizun edo gehiagotara joan izana.

Ezkerreko grafiko honetan, ohitura dutela adierazi duten 23 pertsonako multzo hori zein ikuskizunetan galdekatu dugun ageri da. Ikusten den moduan, musika ikuskizunetan galdekatuak 13 lagun izan dira, antzerkian galdekatuak 7 eta azkenik dantzan galdekatuak 3.

Eskuineko grafiko honetan, ohitura dutela adierazi duten 23 pertsona horiek 2014an joan diren ikuskizunak ageri dira, sektoreka banatuta. 2014an euskaraz jasotako ikuskizunen artean musikakoak gailentzen dira 160 ikuskizunekin, ondoren antzerki ikuskizunak 64 ikuskizunekin, dantza ikuskizunak 33 ikuskizunekin eta azkenik bertso ikuskizunak 11 saiorekin.



Sakontzen jarraitzeko asmoz, ohitura duten 23 pertsona horien ohiturak gehiago aztertu ditugu. Galdetegia egin diegun ikuskizuna zein sektoretakoa den oinarritzat hartu, eta 2014an zein beste sektoretako ikuskizunetara joan den aztertu dugu. Horrela, ohitura duen pertsona multzo horrek dituen zaletasunak ezagutzeko datuak jaso ditugu.



Musika ikuskizunetan galdekatuen ohiturak

Ikus daitekeenez, musika ikuskizunetan galdekatutako 13 lagun horiek 2014an jasotako ikuskizun gehienak musika arlokoak izan dira, 106 ikuskizun. Ondoren dantza eta antzerki ikuskizunak ikusi dituzte, 17 eta 18 ikuskizun. Eta azkenik bertsolaritzakoak, 6 ikuskizun.

- Musikako 106 ikuskizunetara 13 lagun joan dira. Batez bestekoak dio **pertsonako 8 musika ikuskizunetan** egon direla.

Ikuskizun kopuru handiada, ikuskizun askotara joateko ohitura dute. Hori musikarako zaletasunaren eta publiko fidelaren adierazle moduan ulertuko dugu.

Antzerki ikuskizunetan galdekatuen ohiturak

Irudiak erakusten digu ikuskizun kopuruari dagokionez joera bera errepikatzen dela: antzerkian galdekatutakoek 2014an jasotako ikuskizun gehienak antzerki arlokoak izan dira, 47 ikuskizun, eta musika arlokoak oso parean daude, 44 ikuskizun.

Musikan bezala hemen ere zaletasunaren adierazlea agertzen zaigu. Hau da, pertsona hauek galdekatu ditugun ikuskizunaren sektore berera joan dira urtean zehar. Baina kasu honetan antzerkizaleak badirudi musikazaleak ere badirela, baina ez alderantziz:

- Antzerkiko 47 ikuskizunetara 7 lagun joan dira. Batez bestekoak dio **pertsonako 6 antzerki ikuskizunetan** egon direla.
- Musikako 44 ikuskizunetara 6 lagun joan dira. Batez bestekoak dio **pertsonako 7 musika ikuskizunetan** egon direla.

Dantza ikuskizunean galdekatuen ohiturak

Ikus daitekeenez 3 lagun horiek 2014an jasotako ikuskizun gehienak dantzakoak izan dira, 15 ikuskizun hain justu. Ondoren musika ikuskizunak daude, 10 ikuskizunekin. Gero bertso ikuskizunak, 5 saiorekin.

Hemen ere antzerkiko egoera errepikatzen da: dantzazaleak musikazaleak ere badira, baina alderantziz ez:

- Dantzako 15 ikuskizunetara 3 lagun joan dira. Batez bestekoak dio **pertsonako 5 dantza ikuskizunetan** egon direla.
- Musikako 10 ikuskizunetara 2 lagun joan dira. Batez bestekoak dio **pertsonako 5 musika ikuskizunetan** egon direla.

ONDORIOAK: 2. GALDERA

Eskaintzaren zabaltasuna

Ikuskizunetara joateko ohiturari dagokionez, 2014. urte osoa kontuan hartuta, % 42k aitortu du ohitura baduela urtean zehar kultur ikuskizunetara joateko. Azken hiruhilekoan, kopuru hori ia bikoiztu egin da % 76 izatera pasatuz, lehen galderan jaso bezala. Honako hausnarketa egin arazten dute datuek:

- Euskarazko eskaintza handiagoa da urteko azken 3 hilabeteetan eta horrek eragina du ohituretan, urtean zehar ohiturarik ez dutenak ere bertaratzera animatuz.

Zaletasuna

Hiru sektore horietan, **musikan, antzerkian eta dantzan**, urte osoan ikuskizunetara joateko ohitura dutenak hein handi batean sektore horrekiko interesak edota zaletasunak mugitu dituela esan daiteke eta fidelak direla horrekiko:

- Musika ikuskizunean zegoena batez ere musika ikuskizunetan egon da urtean zehar.
- Antzerki ikuskizunean zegoena antzerki eta musika ikuskizunetan egon da urtean zehar.
- Dantza ikuskizunean zegoena dantza eta musika ikuskizunetan egon da urtean zehar.

Hori guztia kontuan izanik hainbat baieztapen egin daitezke:

- Ikuskizunetara joateko ohitura dutenen multzoa joateko ohiturarik ez dutenena baino txikiagoa izan arren, kopurua polita da, 5 lagunetik 2k aitortu baitu ohitura duela. Gainerakoek, ohitura ez duten 3 horiek, hartzaile pasibo lirateke momentuz, baina hartzaile aktibo izatera pasatzeko jauzia ematen laguntzen asmatuz gero, **pertsona talde gakoa** litzateke publiko moduan egunen batean egonkortzera iristeko.
- Zaletasuna gakoa da ohitura sendotzen joateko.
- Arlo batekiko zaletasunak, bertako kultur ikuskizunetara joateko ohitura sendotzen laguntzeaz gain, beste arloetako kultur ikuskizunetara joateko gogoia pizten laguntzen du.

3. GALDERA. Kultur nahiz euskara elkarteren batean, talderen batean edo bazkidetza duen guneren batean parte hartzen duzu?

- Ez
- Bai, bazkidea naiz
- Bai, ekintzak antolatzen edota laguntzen
- Bai, beste moduren batean (sare batean, egituratu gabeko guneren batean...)


AZALPENA

Galdera honen bidez «Hartzaile aktibo» bilakatu izana jaso nahi da. Hartzaile mota hori honela xehatu da:

- Hartzaile («pasibo») izatetik eragile kultural baten parte izatera noizbait pasatu izana, hainbat modutan: bazkide gisa, antolatzaile...

Hartzaile aktibo noizbait bilakatu izana ohitura baten adierazle da, izan ere, momentu batean erabaki du bazkidegata egitea gune batean, edo ikuskizunen antolaketa lanetan hasi da. Maiztasun eta ohitura batek eraginda izaten dela aipatu dugu abiapuntuan.

DATUAK



Galdetegia erantzun dutenen gehiengoak (% 60) ez du inongo kultur elkarte, euskara elkarte, talde edo bazkidegata gunetan parte hartzen. % 30 bazkidea da, eta ekintzak antolatzen edota laguntzen aritzen direnak % 10.

ONDORIOAK: 3. GALDERA

Gehiengo hartzaile pasiboa da: % 60. Gainerakoa, % 40, hartzaile aktibo moduan identifikatuko genuke, eragile kultural baten parte izatera noizbait pasatu izanagatik. Galdekatuen % 40k, beraz, hartzaile aktibo izateagatik ikuskizunetara joateko ohitura duela ondorioztatu dezakegu.

Bazkidegatarako aukera izateak ohituretan eragiten du, ala ohitura izateagatik bazkide egitera pasatzen gara? Ziurrenik bietatik pixka bat egongo da, baina esan genezake ohitura bat nahiz intentzio bat badagoelako egiten garela bazkide, interes bat aurrez badugulako.

OHITURAREN DATU OROKORRAK GALDETEGIKO 3 GALDEREN ARABERA

Euskarazko ikuskizunetara joateko ohitura dutela aitortzen dutenen datu orokorrak:

- Hartzaile aktibo izateagatik ikuskizunetara joateko ohitura dutenak: % 40
- 2014 urte osoa kontuan izanda ikuskizunetara joateko ohitura dutenak: % 42
- Azken hiru hilekoa kontuan izanda ikuskizunetara joateko ohitura dutenak: % 76

Datu horiek ikusita, euskarazko ikuskizunetara joateko ohitura duen pertsonatzat urte osoan zehar 7 ikuskizunetik gora joandakoak hartuko ditugu, % 42. Azken hiruhilekoan 2-3 ikuskizunetik gora joandakoa baino adierazgarriagoa eta sendoagoa iruditzen zaigu urte osoko datua, besteak beste, hartzaile aktiboen datuaren bueltan dagoelako. Beraz, 2014 urte osoa kontuan izanda, % 42ko ohituradunen multzoa izango dugu bereziki aztergai, euren ohituretan eragin duten faktoreak identifikatzeko.

Dena den, azken hiru hilekoaren datuek ematen diguten ehunekoa, % 76, ez da baztertzekoa. Urte osoko % 42ko multzotik azken hiru hilekoko % 76kora dagoen tartea, hau da % 34, publiko gako moduan identifikatu dezakegu. Alegia, urte guztiko ohituradunen adinako ohitura sendoa izan ez arren, landu, zaletasuna piztu eta fidelizatzea lortuz gero publiko egonkorra izateko urratsa emango lukete.

6.1.2. Elkarrizketetako datuak

Asistentzia eta ohitura elkarrizketetan aztertzeko gidoiaren B blokea erabili dugu, hasieran aipatu bezala. Elkarrizketetan jasotako erantzunak ekarri ditugu atal honetara, galdetegian jasotako lehen 3 galderen osagarri.

Asistentzia	Ohitura	Bazkidetza
Helburu nagusia proiektuan herritarren partaidetza bultzatzea da: espazioa eskaintzeaz gain, estrategian, kudeaketan, antolaketan... partaidetza bultzatzen da. Horrek gero eragina du asistentzian.	«Kultur pertsona» bilakatzea: herritarra antolatzaile, hartzaile eta parte hartzaile. Hori proiektuan herritarren partaidetza bultzatusta lortzen da.	Bazkideentzako urte osorako bonua, 4 ikuskizun + 4 menutarako lehentasuna emango duena. Asistentzia handitzea baino, bazkidetza handitzea da helburua. Baina horrek ikusle kopuru bat ziurtatzea ere badakar.
Urte askotan ez da izan beharrezkoa publikoa erakartzeko aparteko lanketarik egitea eta orain ez dakite nola erakarri.	Hilean behin.	Bazkidetza politika dute eta 12 urtetan bere funtzioa bete du baina orain badira urte batzuk moteldu dela.

.../...

Asistentzia	Ohitura	Bazkidetza
<p>Helburuak tokiaren arabera desberdinak dira.</p> <p>Badago jendea herriz herri saioak ikusten joaten dena. Jende hori zaletasunak mugitzen du.</p>	<p>Zaletasunak eta erreferentzialtasunak eragiten dute gehien. Erreferentzialtasuna hartu dute saio batzuek, urtero egun seinalatueta errepikatzen direlako. Erreferente bilakatu dira, eta horietara zaleak ez direnak ere hurbiltzen dira, bertan egon behar bat sortzea lortu da.</p>	<p>Bertso Eskolak berak ez du bazkidetza politikarik, baina Berbaro Euskara Elkarteko bazkideek urteroko hainbat bertso saiotan beherapenak izaten dituzte.</p>
<p>Antzerki taldea oso txertatuta dago herrian eta estreinatzen dutenean publikoak erantzuten du.</p>	<p>Hilean 4 aldiz.</p>	<p>Bazkidetza politikak ohitura sortzen laguntzen du.</p>
<p>Geroz eta gauza gehiago daude. Lehen bakarrak ziren eta beti tope zeuden, orain 100 gerturatzen badira arrakasta da.</p>		<p>Bazkidetza politika dute baina datuak ikusita badirudi erantzuna ez dela handia.</p>
<p>Asistentzia konplikatu dago. Eskaintza guztia antzekoa da. Eskaria ere homogeneoa da. Antzokia betetzeko badakite zer egin behar duten baina hori ez da antzoki publiko baten helburua. Antzoki publikoak hemengo sortzaileen plataforma izan behar dira, baina hauek ez dute erakartzen, 50 pertsona asko jota.</p>	<p>Urtean 3 aldiz joatea bada ohitura.</p>	<p>Bazkidetza politikak jendea erakartzen laguntzen du, dena den, Bilbo sekulako kompetentzia da.</p> <p>Bere ustez laster sistema aldatu beharko da horrelako sustapenak biderkatu egin direlako: fidelizazio sistemak, txartelak...</p>
<p>Kopurua neurtzen da baina dena ezin da horrela neurtu. Programatzaile bakoitzak dauzka 3 edo 4 zaletu arrakasta neurtzeko erabiltzen dituenak.</p>	<p>Urtean 5 aldiz joatea.</p>	<p>Bai badago. Bazkidetza planak laguntzen duela uste du, daturik ez.</p>
<p>Eskaintzen duzunaren arabera. Faktore asko daude; egun aproposak, kartelak...</p>	<p>Ez daki esaten zer den ohitura. Eurak nahiago dute kalitatea eskaini jende asko erakartzea baino.</p>	<p>Ez. Orain udalak antolatzen ditu gauzak eta euren bazkideek ez daukate bonifikazio berezirik.</p>
<p>Ermuak daukan biztanle kopurua ikusita asistentzia ona daukatela iruditzen zaio.</p>	<p>20 ikuskizunetik 4-5era joatea.</p>	<p>Bazkidetza politikarik ez, prezio politika daukate.</p> <p>Taldeekin akordioak egiten dituzte eta zuzenean dantza taldeetan edo euskaltegietan banatzen dituzte sarrerek merkeago.</p>
<p>Jende gehiago gerturatzea nahiko lukete baina ez dira kexu. Publiko fidela daukate. Berriz oso ondo komunikatuta dago, jendea asko mugitzen da eta hala ere jendea dator.</p>		<p>Orain arte ez dute bazkidetza politikarik izan.</p>

ASISTENTZIA

Azpimarratzen da urte askoan ez dela beharrezkoa izan jendea erakartzeko aparteko lanketarik egitea. Baina gaur egun, eskaintza handia dela eta, jendea nola erakarri asmatzen zaila dela.

Bestalde, zaletasunak eta elkarte bateko bazkide izateak asistentzian eragin positiboa dutela esan da.

JARDUERETARA JOATEKO OHITURA

Txosten honetako 2. ABIAPUNTUA atalean zehazten dugunez, ikuskizunetara joateko ohitura azken hiruhilekoan gutxienez hilean behin musika, dantza, antzerkia edota bertsolaritzako ikuskizunetara joan izana da. Urte osoa kontuan hartuz gero, gutxienez 7 ikuskizunetara. Eta hartzaile aktibo izatea ere ohitura gisa definitu dugu.

BAZKIDETZA

Eragiletzaren adierazleetako bat edo lehen urratsa bazkidetza dela ulertzen dugu. Pertsona batek elkarte batera atxikitzeko ematen duen urratsa da, elkarteko parte izatera pasatzeko.

Egindako elkarrizketen artean gehiengoak (10etik 7k) aipatzen du euren bazkideei, ordaindutako kuota baten truke, onurak (prezio beharpenak, lehentasuna, informazioa...) emateko irizpideak dituztela eta horrek asistentzian eragina duela.

Plateruena Kafe Antzokiko filosofia erreferentzia moduan hartu daiteke:

Helburu nagusia proiektuan herritarren partaidetza bultzatzea da: espazioa eskaintzeaz gain, estrategian, kudeaketan, antolaketan... partaidetza bultzatzen da. Horrek gero eragina du asistentzian.

ONDORIOAK: ELKARRIZKETAK

Euskarazko kultur jardueretara joateko ohiturari buruz galdetzean, elkarrizketatuen artean ohitura ulertzeko hainbat ikuspegi azaleratu dira. Muturreko bi iritzi izan ezik, ordea, gainerakoak azterketa lan honen definizioaren bueltan dabilzala esan daiteke.

Zaletasunak eta gune/elkarte bateko bazkide izateak ohituran eta asistentzian eragin positiboa dute.

Ikuskizunak programatzeak baino, herritarrak hasieratik bertan parte hartzera sustatzeak asistentzian eta ohitura hartzean eragin positiboa dute.

6.1.3. Ondorioak: asistentzia eta ohitura

Galdetegiko 1., 2. eta 3. galderak kontuan hartuta alde batetik, eta elkarrizketetako B blokean jasotako erantzunak bestetik, irakurketa orokorra egin dugu ondorio guztiak bateratuz.

ASISTENTZIA ETA OHITURARI BURUZKO ONDORIOAK

Eskaintza zabala izateak eragin zuzena du ohituretan. Gehien programatzen den sektoreetan bertaratzeko ohitura handiagoa da, eta edozein dela ere sektorea programazioa handiagoa den kasuetan bertaratzeko ohiturak ere gora egiten du. Beraz, **zenbat eta eskaintza handiagoa, orduan eta bertaratzeko ohitura handiagoa**. Musikaren kasua eta urteko azken hiruhilekoko programazio kopurua adibide.

Ikuskizunetara joateko ohitura dutenak, batez ere, sektore batekiko zaletasunak mugitzen ditu. Elkarrizketek ere baieztatu dute. Beraz sektore edo gai batekiko **zaletasunak bertaratzeko ohituran eragin zuzena dauka**. Arlo batekiko zaletasunak, arloko ikuskizunetara bertaratzeko ohitura sendotzeaz gain, beste sektoreetako ikuskizunetara joateko gogoia pizten laguntzen du.

Zaletua izateak hartzaile aktibo izatea ahalbidetzen du, hau da, ohituraz ikuskizunetara joaten denez, **bazkietza** edota antolaketa lanak egiten hasten da, eta horrek aldi berean bertaratzeko ohitura eta zaletasuna areagotzen ditu, denak elkar elikatuz.

Hartzaileen parte hartzea ikuskizunen antolaketatik bertatik sustatuz gero, bertaratzeko ohitura handitzen da.

Programazio zabalenerako garaian hartzaile aktibo diren horiek urte osoan aktibo izatera pasatzeko jauzia ematen laguntzen asmatuz gero, **pertsona gakoak** lirarteke publiko moduan egunen batean egonkortzera iristeko.

6.2. HIZKUNTZAREN ERAGINA

Hizkuntzaren eragina jasotzeko ere galdetegia eta elkarrizketak erabili dira. Zehatz esateko honako galderetan jaso ahal izan da:

GALDETEGIA

- 4. galdera

ELKARRIZKETAK

- C BLOKEA. Estrategia eta zereginen balorazioa.
- 5. galdera

6.2.1. Galdetegiko datuak

4. GALDERA. Ikuskizun honetara etortzeko erabakian eraginik izan du euskaraz izateak?


- Ez
- Bai. Zergatik?

AZALPENA

Jardueraren aukeraketan hizkuntzak eragina izan duen jaso nahi izan da galdera honekin, euskararen aldeko jarrerak sarritan euskarazko kultur jardueretan parte hartzea sustatzen baitu.

DATUAK

Hizkuntzak eraginik duen edo ez aztertzen hasteko, herrikako ikuspegia aztertuko dugu. Durango eta Ermuako kasuetan izan ezik, besteetan hizkuntzak eragina duela aitortzen dutenen kopurua gailentzen da. Eta datu horiek bat datoz herrikako euskararen ezagutza datuekin.







Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2011.

Ondorio argirik ezin dugu atera grafiko horietatik, baina honako hau esan daiteke:

- Euskaldun gutxien dagoen herrian, Ermuan, hizkuntzak ez duela eraginik diotenak gehiago dira, eragina dutela aitortu dutenak baino.
- Euskaldun gehien dagoen herrian, Elorrian, hizkuntzak eragina duela esan dutenak gehiago dira, eraginik ez duela esan dutenak baino.

Euskaldun kopuruak % 50 gainditzen duten kasuetan hizkuntzak eragina duela diotenak gehiago dira, eta euskaldun kopuruak % 50 baino gutxiago den herrietan hizkuntzak ez duela eraginik esan dutenak gehiago dira. Horrekin ondorioz atera dezakegu? Sentsibilitate handiagoa dute herri euskaldunagoetan? Ezin dugu horrelakorik baieztatu.

Ikuskizuna euskaraz izateak publiko batengan, bereziki dantza eta antzerki ikuskizunetan, eragina dauka, ondoko grafikoetan ikus daitekeenez. Musikari dagokionez berriz, ikuskizuna euskaraz izateak eragin txikia dauka. Ohitura duten pertsonen artean ere joera bera errepikatzen da.



Kasu honetan ohitura dutenen datua azken hiruhilekoa hartu dugu, hau da, ohitura duten % 76 hori, galdekatua izan deneko ikuskizuna aukeratzeko euskaraz izateak eraginik izan duen galdetu dugulako. Beraz, hiruhilekoan ohitura dutenengan hizkuntzak eraginik izan duen aztertu dugu.

Oro har, euskararen eragina banatuta agertzen da, erdiak hizkuntzak eragina duela erantzun baitu eta beste erdiak eraginik ez duela. Baiezkoa erantzun dutenen arrazoiak honakoak dira:

- Euskara eta euskal kultura sustatu nahiagatik. (6)
- Umeengatik. (4)
- Ikuskizunekoak gertukoak izateagatik. (2)

Baiezko kasuan, zergatik?
Gure hizkuntza delako
Euskara bultzatu behar dugulako, gure ingurua delako
Euskalduna naizelako eta bultzatu behar delako
Euskaldunak garelako eta euskal kultura sustatu behar delako
Euskal kultura delako eta euskaldunak garelako
Ama hizkuntza delako eta euskaraz lan egiten duelako
Euskalduna izanik garrantzitsua da euskara bultzatzea
Durangoko Azoka izateagatik
Umorea euskaraz gustuko dudalako
Umeez hobeto ulertzen dutelako.
Umeekin goazelako
Umea euskaraz bizi delako
Umeengatik
Etxekoa izatea
Folklorea
Laguna

ONDORIOAK: 4. GALDERA

Hizkuntzaren eragina guztira eta sektoreka desberdina da, bai galdekatu guztien datuetan eta bai ohitura dutenen artean. Kontuan hartu behar dira bi aldagai behintzat:

- Sektoreetako galdekatu kopurua: musikan 30, dantzan 7 eta antzerkian 18.
- Sektorekako eragina: antzerkian eta dantzan ikuskizun hori euskaraz izateak bertaratzeko erabakian eragina izan duela gehiengoak esan du. Musikan berriz, eraginik ez duela.

Datu horiekin ondorio argirik ezin dugu atera; esate baterako, kultur espresio batzuetan **hitzak duen pisuak** eragina izan dezakeenik. Izan ere, musikan hitzek badute presentzia nabarmena, eta hizkuntzak eraginik ez duela izan esan du gehiengoak. Bestalde, dantzan, hitzaren presentzia murriztagoa izan daitekeela pentsatuz, hizkuntzak ez duela eraginik ondorioztatu genezake, baina ez da horrela izan.

Dena den, **deigarria da**, gaur gaurkoz, **galdekatuen eta ohitura dutenen erdiak** aitortu izana ikuskizunaren aukeraketan hizkuntzakeragina izan duela; kontuan izanik, gainera, musikan hizkuntzak eraginik ez duela esan dutenak gehiengo zabala direla beste sektoreen alboan. Horrek esan nahi du **antzerkian eta dantzan** hizkuntzak eragin nabarmena duela hein handi batean militantziagatik, izan ere, **gehiengoak** aitortu du euskara sustatzeagatik aukeratu duela jarduera hori.

6.2.2. Elkarrizketetako datuak

Hizkuntzaren eragina elkarrizketetan aztertzeko gidoiaren C blokeko 5.galdera erabili dugu. Galdetegian jasotako 4. galderaren osagarri, atal honetara elkarrizketetan jasotakoaren analisia ekarri dugu.

Hasteko, elkarrizketetatik jasotako erantzunak aztertuko ditugu:

HIZKUNTZAREN ERAGINA, EKITALDIETARA JOATEKO OHITURETAN

«Euskaldunongan kulturarekiko jakin-mina ez da handia, hein batean kultura ez dugulako aisialdiarekin lotzen. Baina militantziak oraindik jendea mugitzen du. Aisialdia kulturarekin lotu beharko litzateke, jendea modu naturalean zale bihurtzeko».

«Oso gutxi. Publiko orokorretik batzuk ez dira etorriko euskaraz delako».

«Hizkuntza ez da bereizgarria. Interesa sortzen badu joango da. Jendeak nahiago du gaztelera ikustea. Kontuan izan behar da, euskara bultzatzearen dauden diru-laguntza politikak euskarazko antzerkien kalitatea jaitea ekarri dezake».

«Bertsolaritza euskaraz da eta derrigor euskaraz jakin behar da. Ez du gaztelaniazko bertsolaritzarekin lehiatzen. Gune erdaldunetan, adibidez, militantziagatik etortzen da hainbat jende, zaleak ez izanda ere. Hau da, euskaraz delako joaten dira (Barakaldon adibidez), baina ez da ohikoena».

«Badu eragina. Jende batengan bai behintzat».

«Karrika Antzerki Taldea euskaraz sortu zen eta euskaraz lan egiten du, inoiz ez dute hori aldatzerik pentsatu. Euskal Herrian hizkuntza ez da elementu determinatzailea publikoa erakartzeko. Badu eragina. Jende bat agian ez da etorriko euskaraz delako, gehiago kostatzen zaiolako. Euskarazko antzerkian hutsune bat dago, itzulpenetan, klasikoetan...».

«Kontrakoa. Publiko potentzial gutxiago dagoelako».

«Euskarazko ikuskizunetan, oso posible da ondoko herrietan ere gauza bera programatzea beraz publikoa gutxitu egiten da. Gaztelera gehiago. Militantzia aspaldi bukatu zen. Kalitateak dauka garrantzia beraz euskaraz bai baina kalitatea badauka, bestela ez».

«Ez. Ez dago normalizatua beraz magia egin behar da».

«Euskaraz programatzen dugu daukagun publikoa baino gehiago. Euskara bultzatzea obligazioa delako. Euskarazko ikuskizunak bermatu bai baina...».

«Beharrezkoa da, eskaera dago. Murriztu egiten du publiko posiblea, Zornotzan behintzat».

«Sormena baloratzen da, hizkuntza ez da hain garrantzitsua».

«Adin tartearen arabera. Haurrak erakartzen dituzu baina gazteekin, euskaraz izanda, aparteko lan bat egin behar da. Beti egon behar zara estrategiak pentsatzen. Gurasoak umeekin batera mugitzen dira».

«Zaletasuna bai. Militantzia kontua. Jendearen atzetik ibili behar zara euskarazko ikuskizunetara hurbiltzeko...».

«Kontrakoa normalean».

«Euskaraz eta gaztelera aldagai igualak funtzionatzen dute. Militantzia egon daiteke baina geroz eta gutxiago. Jendea, interesa daukalako etortzen da».

«Kontrakoa. Udalean hizkuntza/berdintasuna/kultura batera egiten dute lan eta euskaraz programatzen dute nahiz eta euskaraz izateagatik jende gutxiago erakarri. Euskaldunek ere gaztelera nahiago dute (helduek)».

«Euskaldunak bloke moduan mugitzen dira. Militante batzuk oraindik badaude. Publiko fidela daukate eta euskaraz izan edo gaztelera izan berdin-berdin datoz. Kultura da, hizkuntza ez da garrantzitsua».

Laburbilduz, hemen aipatutako zenbait iritzi:

- *Aisialdia kulturarekin lotu beharko litzateke, jendea modu naturalean zale bihurtzeko.*
- *Gune erdaldunetan, militantziagatik etortzen da hainbat jende, zaleak ez izanda ere.*
- *Militantzia egon daiteke baina oso gutxi, geroz eta gutxiago.*
- *Hizkuntza ez da bereizgarria. Interesa sortzen badu joango da.*
- *Kultura da, hizkuntza ez da garrantzitsua.*
- *Euskarazko jardueretara publikoa erakartzea zailagoa da.*
- *Adin tartearen arabera. Haurrak erakartzen dituzu baina gazteekin, euskaraz izanda, aparteko lan bat egin behar da. Beti egon behar zara estrategiak pentsatzen.*
- *Euskaraz programatzen dugu daukagun publikoa baino gehiago. Euskara bultzatzea obligazioa delako. Hipokrisia soziala da, euskarazko ikuskizunak bermatu baina. . . .*
- *Eta aldi berean, beharrezkoa da, eskaera dago.*

Jarduerak euskaraz izateak duen eraginari buruz iritzi ugari eta zinez desberdinak dira jasotakoak. Oro har, ez dute ikusten hizkuntzak ikuskizunetara joateko ohituran eragin positiborik duenik. Izatekotan, kontrako eragina dauka.

ONDORIOAK: ELKARRIZKETAK

Elkarrizketatuen gehiengoak, 10etik 7k, jardueretara joateko ohituretan hizkuntzak eragin positiborik ez duela esan du.

- Eragin positibo duela azpimarratu duten 3 elkarrizketatuetako 2 antzerki taldeetakoak dira, eta hirugarrena, euskararen erabilera sustatzeko elkarte bateko kidea da.
- Eraginik ez duela dioten gehienak udaletako nahiz udal aretoetako teknikariak dira.

Beraz:

- Udal esparruko antolatzaileen ikuspegitik euskarak ez du ikuskizunetara joateko ohituretan eragin positiborik, eta izatekotan, negatiboki eragiten du, jendea erakartzea zailagoa dela argudiatuz.
- Hartzaileekin harreman zuzenagoa nahiz parte hartzaileagoa duten esparruetako kideen ikuspegitik ikuskizuna euskaraz izateak badu eraginik ohituretan, eta gainera, positiboki.

Euskarazko jardueretara bertaratzeko ohituretan eragiten duten aldagaiek lotura zuzena daukate euskarazko jardueren eskaintzatik aparteko beste eskaintza hauekin:

- Euskarazkoak ez diren kultur jardueren programazioarekin.
- Aisialdirako eskaintzarekin.

Horietan bietan ere eskaintza zabal eta dibertsifikatua izateak euskarazko jardueretara joan ohi den hartzailearengan eragina du, aukeraketa egin behar duelako. Hau da, euskarazko kultur jardueri bi eskaintza horietako jarduerekin lehiatzea egokitzen zaie, besteak beste, euskaldun guztiak gutxienez elebidunak direlako.

6.2.3. Ondorioak: hizkuntzaren eragina

Galdetegiko 4. galdera kontuan hartuta alde batetik, eta elkarrizketetako B blokeko 5. galderan jasotako erantzunak bestetik, irakurketa orokorra egin dugu ondorioak bateratuz.

HIZKUNTZAREN ERAGINARI BURUZKO ONDORIOAK

Esparruaren arabera, hau da, kultur programatzailea izan, sortzailea, kultur eragilea edota hartzailea izan, hizkuntzak euskarazko ikuskizunetara joateko ohituran duen eraginari buruzko ikuspegia eta iritzia desberdina da.

- Galdekatuen % 50ek eta hiruhilekoan ohitura dutenen % 54k ikuskizuna euskaraz izateak bere aukeraketan positiboki eragin duela aipatu du. Antzerkian eta dantzan gehiengoarengan izan du eragin positiboa, musikan gutxiengoarengan.
- Antolatzaileen % 70ek, berriz, ikuskizuna euskaraz izateak ez duela eraginik esan du.

Gaur gaurkoz, euskara sustatzeko sentsibilitateak bertaratzeko ohituretan eragina baduela esan dezakegu, handia ez baldin bada ere, eragina izan duela aitortu dutenen gehiengoak arrazoi hori erabili baitu. Gainera, antzerkian eta dantzan euskararen aldeko jarrera horrek nabarmentzeko eragina dauka.

Antolatzaileen gehiengoak euskararen eragina, izatekotan, negatiboa dela esan izanak euren publikoarekiko harremanean eta antolaketako parte hartzean gehiago sakondu beharko luketela ondorioztatzeko balio dezake, antolatzaileen pertzepzioak eta errealitatea guztiz bat datozen ikusteko.

Ohituren atalean esan dugu zaletasuna eta fideltasuna ohiturekin guztiz lotuta daudela eta sektore guztiek dutela publiko fidela. Hizkuntzaren kasua, ordea, ez da erabat horrela. Beraz, ikuskizunetara joateko ohituretan hizkuntzak zaletasunak baino eragin txikiagoa daukala ondorioztatu dezakegu.

Beste hizkuntzekin lehiatu behar du euskarazko programazioak, euskaldun guztiak gutxienez elebidunak direlako. Eskaintza zabala duten hizkuntzak dira horiek, eta beraz, euskarazkoetara bertaratzeko ohituretan negatiboki eragiten dute.

6.3. BESTELAKO ALDAGAIK

Abiapuntuan esan bezala, badaude beste hainbat aldagai euskarazko ikuskizunetara joateko ohituretan eragina dutenak. Aldagai horiek zer pisu duten aztertuko dugu atal honetan.

Informazio hori jasotzeko ere galdetegia eta elkarrizketak erabili dira. Zehatz esateko honako galderetan jaso da:

GALDETEGIA

- 5. galdera
- 6. galdera

ELKARRIZKETAK

- C BLOKEA. Estrategia eta zereginen balorazioa.
- 1., 2., 3. eta 4. galderak

Galdetegiko 5. galderaren bidez 8 aldagairi buruzko iritzia jaso dugu, eta elkarrizketen kasuan aldagai bat gehiago aztertu dugu, ikuskizunaren kalitateari buruz ere galdetuz. Hauek dira 9 aldagaiak:

- Jarduera euskaraz izatea.
- Norberak zaletasuna edukitzea.
- Prezioa.
- Denbora izatea edo denbora falta, ikuskizunetara etortzeko.
- Ikuskizunekoak herritarrak izatea.
- Famatua izatea.
- Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea.
- Lekua, non antolatu den.
- Ikuskizunaren kalitatea.

Horiez gain, galdetegiaren 6. galderaren bidez komunikazio kanalen informazioa jaso dugu, hau da, jardueraren berri nola izan duen.

6.3.1. Galdetegiko datuak

5. GALDERA. Lau sektore horietako ikuskizun batera berriz etortzeko, ze garrantzi maila ematen diozu faktore bakoitzari? Baloratu 1 etik 3ra.





- 1: Garrantzi handirik ez du
- 2: Garrantzi pixka bat du
- 3: Garrantzi handia du


AZALPENA

Galdera honen bidez ohituretan eragin dezaketen hainbat patroi eta aldagai identifikatu nahi izan dira. Esan bezala, 8 aldagairi buruzko iritzia jaso dugu, horretarako aldagai bakoitzak euskarazko ikuskizunetara joateko ohituren duen garrantzia 1 etik 3ra baloratzeko eskatuz.

DATUAK

Kulturaren Euskal Behatokia






Argazki orokorra eta sektorekako, galdekatu guztien kasuan nahiz urte osoan ohitura dutenen kasuan, garrantzi handia dutela baloratutako hiru faktoreak berdinak dira:

- Norberak zaletasuna edukitzea.
- Jarduera euskaraz izatea.
- Denbora izatea edo denbora falta, ikuskizunetara etortzeko.

Bestalde, oso kontuan izateko datuak dira garrantzi handia eta garrantzi pixka bat erantzun dutenen batuketara, **beste bi aldagai** ere nabarmentzen baitira eta denbora faltaren aldagaiaren garrantzi maila berdindu edota pasa egiten baitute: herritarrak izatea eta ingurukoek gomendatua izatea.



ONDORIOAK: 5. GALDERA

Adierazgarria da garrantzi handiena duten faktoreak kasu guztietan berdinak izatea: zaletasuna, hizkuntza eta denbora. Ohituretan eragin zuzena dutela esan dezakegu. Dena den, horiekin batera ikuskizunekoak herritarrak izateak eta norbaitek gomendatua izateak ere eragina dute, izan ere, garrantzi handia eta pixka bat dutela esan dutenen datuak batuz gero denboraren aldagaia gainditzen dute.

Bestalde, garrantzi pixka bat dutenen artean prezioaren aldagaia nabarmen handiagoa da besteak baino, beraz, kezka sortzen duen aldagaia da gaur egun.

Garrantzirik apenas duena, zalantzarik gabe, famatua izatearena da. Aretoa betetzen laguntzen duen aldagai garrantzitsuena dela badakigu, baina badirudi horrek ez duela ohituretan gehiegi eragiten.

Hiru multzotan banatu dugu faktoreek ohituretan duten eragina, ohitura dutela aitortu dutenen datuak kontuan hartuta:

Ohituretan eragin handia duten faktoreak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Norberak zaletasuna edukitzea ▪ Jarduera euskaraz izatea
Ohituretan eragin ertaina duten faktoreak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denbora izatea edo denbora falta ▪ Ikuskizunekoak herritarrak izatea ▪ Ingurukoek gomendatua izatea ▪ Prezioa
Ohituretan eragin txikia duten faktoreak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lekua ▪ Famatua izatea

Hori guztia ikusirik, eragin handiena duten bi faktoreek orain arteko ondorioetan agertu zaiguna baieztatzen dute:

- Zaletasunak eta jarduera euskaraz izateak ohituretan eragina dute.
- Zaletasunak hizkuntzak baino eragin handiagoa dauka.
- Jarduera euskaraz izateak, gaur gaurkoz, ohituretan eragina du.

Aldagai berrien artean denborarena agertu da. Badirudi gaur egungo bizimodu bizkorak eta aisialdirako, gozamenerako eta entretenimendurako aukera ugariak ikuskizunetara bertaratzeko denbora gutxiago uzten digula, edo lehentasunen artean beste hainbat egiteko ezartzen ditugula. Euskal kulturak ez du beste hizkuntzetako kultur jarduerekin soilik lehiatu behar, kirolarekin, interneteko eskaintzarekin, kontsumo bide eta lekuekin eta gizarteko beste hainbat esparrurekin lehiatu behar du. Hori guztia ikuskizunetara bertaratzeko ohituretan eragitearen kontra dago. Izan ere, lehentasunak beste nonbait ezartzearen arrazoen artean heziketa eta balioak ere badaude, eta maila horretan lan egin ezean kultur ikuskizunak eta sormena albo batean geratzeko arriskua legoke, ohitura duten hartzaileak ez liratekeelako sortuko.

Bestalde, gertutasunak ohituretan positiboki eragiteko gaitasuna du, esate baterako ikuskizunekoak ezaguna baldin bada edota inguruko batek ikuskizuna gomendatu badu.



6. GALDERA. Nola izan duzu jarduera honen berri? Zein komunikazio kanaletatik?

AZALPENA

Euskarazko ikuskizunen zabalkunderako bideak zein diren eta zein errepikatzen den aztertu nahi da galdera honekin. Euskarazko ikuskizunen agerikotasuna baloratzeko balioko du, besteak beste.

DATUAK

Galdekatuek zein kanalen bidez izan duten jardueraren berri:



Datuek erakusten digutenez, ahoz ahokoa da nagusi datu orokorretan; eta musika eta dantza sektoreetan berdin gertatzen da. Antzerki ikuskizunen berri, ordea, badirudi kartel eta informazio orrietatik izaten dugula. Teknologia eta komunikazio kanal berriak, internetekin lotuta daudenak, bigarren kanal gisa ageri zaizkigu datu orokorretan, hiru sektoreetan presentzia hartzen hasi baita.

ONDORIOAK: 6. GALDERA

Euskarazko jardueren berri batez ere ahoz izaten dugula esan dezakegu ondorio nagusi gisa. Musikan eta dantzan, gainera, bereziki nabarmentzen den zerbait da beste komunikazio kanalen ondoan. Ez da harrizkoa emaitza hori atera izana, kontuan hartzen badugu 5.galderako aldagaien artean ingurukoek gomendatua izateak eta herritarra izateak garrantzia duela jaso dugula. Gertutasuna eta ahoz ahokoa, beraz, elkarrekin doazen bi aldagai dira.

Antzerkian paperezko euskarriek funtzionatzen dute, kartel, esku-orri eta agendek batez ere. Sektore bakoitzak bere bidea egiten du eta bakoitzari bereak funtzionatzen dio.

Internetek eta sare sozialek indar handiagoa izatea espero zitekeen garaian bizi gara, baina badirudi euskarazko programazioa itsaso zabal horretan oraindik ezkutu antzean dagoela. Hizkuntza guztiek tresna berberak dituzte sarean eta horrek hainbat abantaila eman diezaioke euskara bezalako hizkuntza gutxitu bati; baina aldi berean hizkuntza indartsuek sortze eta zabaltze baliabide askoz gehiago izaterakoan, informazio asko biltzen da sarean eta hizkuntza gutxituen agerikotasuna txikiagotu egiten da. Dena den, datu orokorretan bigarren lekuan agertzen dira internetekin lotutako komunikazio kanalak, eta horrek euskal komunitatea sarean dagoela esan nahi du. Internetek ematen dituen abantailak aprobetxatzen asmatuz gero, publikoarengana iristeko eta beragan eragiteko aukerak areagotuko dira.

Badirudi euskal komunitateak agerikotasun falta geroz eta handiago horri irtenbidea gertutasunarekin eman diola; izan ere, bai ahoz ahokoak eta bai paperezko euskarriek aurrez aurrekoa edota gertutasuna erakusten dute. Euskal komunitateak bertako pertsonen arteko informazio fluxu eraginkorra hor aurkitu du, eta fluxu horiek indartzea gakoa izan daiteke, teknologia berrien aukerak aukera gisa eta guztiaren osagarri erabilia.

6.3.2. Elkarrizketetako datuak

Aurrezaipatu dugun moduan, elkarrizketen kasuan beste aldagai bat ere aztertu dugu, ikuskizunaren kalitateari buruz galdetu baita. Hauek dira elkarrizketatuek esandakoak:

OHITURETAN ERAGITEN DUTEN BESTELAKO ALDAGAIK

- «Norberak zaletasuna edukitzea: batez ere zaletasunak eta militantziak mugitzen du jendea. Fidelizazioa ez du aretoak lortzen, egitasmoak edo programak sortzen du».
- «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: sortzaileak herritarrak direnean aretoa bete egiten da».
- «Ikuskizunaren kalitatea: produktua nola dagoen landuta esan nahi du kalitateak. Euskarazko sortzaileek lehia handia dute beste kulturekin».
- «Lekuak, non antolatu den. Ez askorik».

.../...

OHITURETAN ERAGITEN DUTEN BESTELAKO ALDAGAIK

- «Jarduera euskaraz izatea: oso gutxi. Publiko orokorretik batzuk ez dira etorriko euskaraz delako».
 - «Norberak zaletasuna edukitzea: asko».
 - «Prezioa: ez dut uste, gure kontsumitzaileek ez daukate arazorik».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: lehentasun kontua da, ez denbora falta».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai».
 - «Famatua izatea: bai».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: erakartzeko eta ohitura sortzeko bai».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai».
 - «Lekua, non antolatu den: zaletasuna egiteko bai, datozenean eroso sentitzen badira».
- «Norberak zaletasuna edukitzea: zaletu desberdinak daude, txapelketa zaleak, saio arrunten zaleak... baina batez ere azkenak mugitzen du jendea».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: Bertso Eskolako umeen saioak beteta egoten dira, euren familiak osorik etortzen direlako. Horien artean %10 izango da euren kabuz saioetara joaten direnak. Ezagunak ikustera joatea errazagoa da».
 - «Famatua izatea: bertsolaritzako famatuek, eliteek, zalantzarik gabe bete egiten dute; eragin handia dute. Hain zaleak ez direnak ere mugitzen dituzte».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: betiko formatutik atera eta etengabe berritzen aritzeak eragin handia dauka».
- «Jarduera euskaraz izatea: badu eragina. Jende batengan bai behintzat».
 - «Norberak zaletasuna edukitzea: aldagai potente bat da».
 - «Prezioa: merkea ez da. Helduentzat bai, baina jende gaztearentzat ez da merkea».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: ez dut uste. Gizartearen ohituren dago trukoa, lehentasun kontua da».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai. Ezinbestekoa da herriko taldeei aukera ematea, horrek, antzerkia herriratu egiten du».
 - «Famatua izatea: momentukoa bai, ohitura ez. Espektakuluaren kontsumitzaileak dira, ez kultura kontsumitzaileak».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: bai».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai noski».
 - «Lekua, non antolatu den: bai, baldintza aiproposenetan eskaintzeak».
- «Jarduera euskaraz izatea: kontrakoa, publiko potentzial gutxiago dagoelako».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai».
 - «Famatua izatea: bai».
 - «Aukeratu egin behar da, nahiz eta gustukoa izan. Bestalde euskarazko ikuskizunak euskal Herrian bakarrik programatzen dira, horrek esan nahi du oso posible dela ondoko herrietan ere gauza bera programatzea beraz publikoa gutxitu egiten da».

.../...

OHITURETAN ERAGITEN DUTEN BESTELAKO ALDAGAIK

- «Jarduera euskaraz izatea: ez. Ez dago normalizatua beraz magia egin behar da (euskaltegieta deitu...)».
 - «Prezioa: gutxi. Krisialdian igartzen da. Zuzeneko ikuskizunak oso merkeak dira eskualde honetan, hori bai, batzuetan zinearekin (kudeaketa pribatua) talka egiten dute. Pilatzen bada badauka eragina».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: aitzakia».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai. Jendea aktibatzen du».
 - «Famatua izatea: bai. Jendea aktibatzen du».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: zaletuen artean bai, baina memoria gutxi dago».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai, batez ere gazteen artean».
 - «Lekua, non antolatu den: garrantzitsua da. Guztiz ezberdina da esperientzia».
-
- «Jarduera euskaraz izatea: beharrezkoa da, eskaera dago. Murriztu egiten du publiko posiblea, Zornotzan behintzat».
 - «Norberak zaletasuna edukitzea: soziologikoki asko aldatzen ari gara. Aisialdiko kontsumo eskaintza asko handitu da, denbora librea negozio bat da eta kompetentzia handia dago. Oso zaila da pertsona bat areto berdineran 2 aldiz joatea (hor zinearekin talka egiten dute). Nerabeekin (13-18) kanpaina egiten dute. 7 urte antzerkia garatzen, ikastaroak eta gero jaialdia. Honek luzera lagundu egingo du».
 - «Prezioa: bai. Doakoa bada ez da baloratzen baina prezioari begiratzen zaio».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: ume txikiak dauzkaten bikoteen kasuan nabarmena da».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai».
 - «Famatua izatea: bai, tristea da baina horrela da».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: bai, baina zaila da alde zurretik jakitea».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai».
-
- «Jarduera euskaraz izatea: adin tartearan arabera. Haurrak erakartzen dituzu, gazteekin euskaraz izanda lan estra bat egin behar duzu. Beti egon behar zara estrategiak pentsatzen. Gurasoak argi dago umeei batera mugitzen direla».
 - «Norberak zaletasuna edukitzea: euskarazko kontuetan militantzia da. Bertso saioetan inkondizionalak».
 - «Prezioa: normaltasun batean gaude».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: astean zehar zaila da. Kezka egun aproposenarekin, ahal badute asteartean antolatzen dituzte gauzak».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: antzerkian adibidez bai».
 - «Famatua izatea: bai. Telebistan agertzeak pisu handia du».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: kalitatea baloratzen da baina erakartzeko beste zerbait behar da».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai».
 - «Lekua: bai. Oso errotuta daudenek kalean funtzionatzen dute».

.../...

OHITURETAN ERAGITEN DUTEN BESTELAKO ALDAGAIAK

- «Jarduera euskaraz izatea: kontrakoa normalean».
 - «Norberak zaletasuna edukitzea: zelan dakizu hori? Ez da oso zientifikoa».
 - «Prezioa: bai, eragina dauka».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: aitzakia».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai».
 - «Famatua izatea: bai, telebistan agertzen badira».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: bai, baina beste bide batetik konbentzitu behar dituzu».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai ("El interprete" kasuan adib.)»
 - «Lekua, non antolatu den: bai. Berriztu dutean hobeto».
-
- «Jarduera euskaraz izatea: kontrakoa. Udalean hizkuntza/berdintasuna/kultura batera egiten dute lan eta euskaraz programatzen dute nahiz eta euskaraz delako jende gutxiago erakarri. Euskaldunek ere gazteleraz nahiago dute (helduek)».
 - «Norberak zaletasuna edukitzea: herrian ohitura sortzen ari dira. Heziketa lanetan ari dira, zaletasun horiek sortzen. Umeekin egiten dute kanpaina baina gero koskortzen direnean herritik desagertzen dira eta pista galtzen da».
 - «Prezioa: popularrak dira. Betik ordaindu behar izaten da zerbait baina ez da muga bat izaten».
 - «Denbora izatea edo denbora falta: aitzakia da gehiago».
 - «Ikuskizunekoak herritarrak izatea: bai».
 - «Famatua izatea: bai, batez ere telebistan agertzen badira. Erakartzen du».
 - «Ikuskizunaren kalitatea: eduki beharko. Ohitura sortzeko kalitatea bai. Herrikoekin denetik egin behar duzu. Publikoak onena merezi du».
 - «Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea: bai, ahoz ahokoak funtzionatzen du. Erraz zabaltzen da. Publizitateak eta telebistak pisu handia».
 - «Lekua, non antolatu den: bai, baina zaila da jakitea zenbaterainoko eragina duen. Originaltasuna baloratzen da. Gauzak toki berean ikusteak nekatu egiten du».

Elkarrizketetan iritzi desberdinak jaso badira ere, hauek dira gehien errepikatu diren aldagaiak eta bakoitzari lotutako zenbait aipamen:

- **Ikuskizunekoak herritarrak izatea:** sortzaileak edota emaileak herritarrak direnean aretoa bete egiten da. Ezagunak ikustera joatea errazagoa da.
- **Famatua izatea:** famatuek, eliteek, aretoa bete egiten dute; eragin handia dute horretan. Hain zaleak ez direnak ere mugitzen dituzte. Telebistan agertzeak pisu handia dauka.
- **Ingurukoek gomendatua izatea, erreferentzia onak edukitzea:** ahoz ahokoak funtzionatzen du, erraz zabaltzen da. Batez ere gazteen artean. Publizitateak eta telebistak pisu handia dute.
- **Denbora falta:** aitzakia da. Lehentasun kontua da eta kulturaren aurretik beste gauza batzuk jartzen dira.
- **Ikuskizunaren kalitatea:** erakartzeko eta ohitura sortzeko eragina dauka. Betiko formatutik atera eta etengabe berritzen aritzeak eragina dauka.

ONDORIOAK: ELKARRIZKETAK

Euskarazko ikuskizunetara joateko ohituran eragina duten aldagaiak aukeratzekoan, publiko-arekiko gertutasuna adierazten dutenak lehenesten dira:

- Ikuskizunekoak herritarrak izatea.
- Famatuak izatea.
- Ingurukoek gomendatua izatea.

Lehen biek, ordea, badirudi aretoa nola bete adierazten dutela eta ez horrenbeste ohituretan eragiten dutenik. Elkarrizketatuek, nahi gabe ere, ohiturez hitz egiten hasi eta aretoa jendez betetzeko «arrakastaz» hitz egitera salto egin dute. Beraz, ohitura sortzen dutenik baieztatzea ez da erraza.

Dena den, ikuskizunekoak herritarrak izateak, esate baterako, bat egiten du galdetegian esandakoekin, beraz, ohituretan famatua izateak baino eragin handiagoa daukala esan daiteke.

Ingurukoek gomendatua izateak ere badu gertutasunarekin zerikusirik, erreferentzia on horiengan konfiantza dugu. Ingurukoek laguntzaz ikuskizunetara joateko ohitura areagotu daitekeela esango dugu.

Denbora faltak ohituretan negatiboki eragiten duela ondorioztatu daiteke elkarrizketetatik, izan ere, gehienek azpimarratu dute ikuskizunetara joateko denbora hartzea lehentasun kontua dela eta jendeak aitzakia gisa erabiltzen duela. Aitzakia izan ala ez, denbora faltak edo denbora izateak negatiboki edo positiboki eragiten du ohituretan, hurrenez hurren.

Bestalde, ikuskizunaren kalitatea ere aipatu da, bai erakartzeko eta baita ohitura sortzeko ere. Ikuskizunak desberdinak eta berritzaileak izateak bertaratzeko interesa pizten du, eta beraz, ohitura eragiten du.

6.3.3. Ondorioak: bestelako aldagaiak

Galdetegiko 5. eta 6. galdera kontuan hartuta alde batetik, eta elkarrizketetako C blokeko lehen 4 galderak bestetik, irakurketa orokorra egin dugu ondorioak bateratuz.

BESTELAKO ALDAGAI EI BURUZKO ONDORIOAK

Kasu honetan ere, esparruaren arabera, hau da, kultur programatzailea izan, sortzailea, kultur eragilea edota hartzailea izan, euskarazko ikuskizunetara joateko ohituraren bestelako aldagaiak duten eraginari buruzko ikuspegia eta iritzia desberdina da.

Galdekaturen artean ohitura dutela esan dutenen erantzunen arabera **zaletasunak eta ikuskizuna euskaraz izateak** eragin positiboa du ohituretan. Horrek aurreko ataletako ondorioak baieztatzen ditu. Elkarrizketatuek, hau da, antolatzaileek, ordea, hizkuntzaren eragina, izatekotan negatiboa dela esan dute. Antolatzaileen eta publikoaren arteko hutsuneaz hitz egin daiteke berriro, ala antolatzaileentzat esfortzu handiagoa edota desberdina delako diote euskararen eragina negatiboa dela?

Galdetegian eta elkarrizketetan, bieran, gertutasunaren aldagaiak ikuskizunetara joateko ohituretan positiboki eragiten duela esan da, hau da, **ikuskizunekoa herritarra izateak** ohitura sortzen laguntzen du. Horrekin batera **inguruko gomendioek** ere positiboki eragiten dute.

Famatua izateak aretoak betetzen laguntzen du (telebistaren eragina aipatu da), baina ezin da ondorioztatu ohitura sortzen laguntzen duenik. Dena den, ikuskizun famatuak amu gisa baliagarriak izan daitezke kultur jarduera batera edo sektore ezezagun batera lehen aldiz norbait erakartzeko eta publiko berria lantzen hasteko.

Ikuskizunaren hartzaileek zaletasuna, hizkuntza eta denbora izatea lehenesten duten bitartean, antolatzaileek, publikoarekiko gertutasunari lotutako aldagaiak baloratu dituzte gehien, famatua izatea eta herritarra izatea. Antolatzaileek aretoa betetzeko arrakastaren ikuspegitik erantzun duten kezka izanik, ondorio garbirik ezin da atera, esate baterako, **antolatzaileek euren publikoaren interesak hobeto eza-gutzeko beharra duten ala ez.**

Denbora faltak negatiboki eragiten du bertaratzeko ohituretan, edo alderantziz esanda, denbora izateak positiboki eragiten du, galdetegietan aitortu denez. Elkarrizketetan ere gauza bera esan da, alde txiki batekin: aitzakia dela eta lehentasun kontua dela ikuskizunetara joan ala ez. Gaur egungo bizimoduan ikuskizunetarako tarte bat hartzea kosta egiten da, besteak beste, formatu eta eskaintza ugarirekin lehiatu behar duelako kulturak, hala nola, kirola, ikus-entzunezko labur eta doakoak internetean... Bizimodu bizkor eta beteak lehentasunak jartzera behartzen gaitu, eta lehentasun horietan **kulturari ematen zaion balioak zeresan handia dauka**, bai gizarteak ematen dion balioak, bai hezkuntza sisteman ematen zaionak, bai etxean ematen zaionak. **Heziketak eta gizarteko balioek kultur ohituretan eragin zuzena daukate beraz.**

Ikuskizunaren kalitateak publikoaren fideltasunean eragiten du, jendeak bertaratzeko jarraitu dezan laguntzen du, beraz, **ohitura dutenengan eragin positiboa du.**

Komunikazioak ez du zuzenean ohitura areagotzen laguntzen, baina **euskarazko ikuskizunen agerikotasunean eragin nabarmena dauka** baldin eta sektore bakoitzari egokitutako kanal egonkor bat modu jarraian erabiltzen bada. Horrek ohiturak areagotzen lagundu dezake, bereziki euskarazko jardueren kasuan, internet sarean eta kalean dagoen eskaintza izugarriaren ondoan ezkutuan geratzen baita.

Behar bada agerikotasun eskas horren ondorioz euskarazko jardueren zabalkundearen ahoz ahokoak funtzionatzen du, eta horrek ikuskizunaren gertutasunarekin batera ohituretan eragina du.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



www.euskadi.eus/kulturabehatokia